



Iruñetik kexu

Udaleko paper, agiri eta inprimaki guztiak euskaraz. Euskaldunetz arduratzeko hizkuntza hau dakien jendea jartzea Udaletxean. Hauek dira, besteak beste, Euskal Herrian Euskaraz taldeak martxan jarri berri duen kanpainan agertzen diren helburu batzu.

Lortuko ez diren helburuak, orain arte erdaldunak jaun eta jabe izan badira, ez bait dirudi beren maila hori izteko prest daudenik.

Ez dira erdietsiko, ez. Jaungoikoak erran omen bait zien haiek agintzeko jaiok zirena, eta zerutik etorritako agindu hori betetzen ahalegintzen bait dira, horretan hutsen bat leporatzeko aukerarik ematen ez dutelarik.

Haiek dirua (diru publikoa), indarra, agintzeko ahalmena, beraiek ezarritako legeak, boterea eta bar luze bat dituzte. Eta are gehiago oraindik, guzti hori haien alde erabiltzeko inolako lotsa, bihotz zimiko, edo antzekorik ez duen jite gogorra, mende askotan Jainkoaren errana ez zapuzteko eginahal bizitan landuta.

Ez, ez dira lortuko. Zergatik, ba, hori onartu, euskara aintzinean erabili omen zen hizkuntza besterik ez bada? Zergatik horretan amore eman, Sabino Aranak, gaixorik zegoela, sortu zuen funtsik gabeko asmakeria edo H.B.-koen txorakeri bat baino ez bada euskara?

Eguneroko bereizkeria egiten zaigu; baina nola horrela ez izan, haientzat euskara eta gu, euskaldunok, ez bagara ezer edo inor?

Baina euskararen ofizialtasuna eta erakundeen aldetik erabilera erdietsi al daitezke Arjelen omen diren nego-

ziaketetan arazo hau mahairatu gabe? Era paketsuaz gure eskubideak eskuratzerik ba al dago? Edo nahitana hiez zapalduak irauteko kondenatuak ote gaude?

J.O.V.

Martxoak 21: Herrien Europak badu bere eguna

CONSEOren erabakia izan zen: orain dela urte t'erdi izendatu zuen martxoaren 21a «Herrien Europaren Eguna». Iazkoa izan zen aurrena: aurtengoa, bigarrena.

CONSEO bera erakunde berria da. Hasi gaitezen sigla horren irakurketa eginez: Mendebal Europako Estaturik gabeko Herrien Konferentzia, edo «Conferencia de Naciones sin Estado de la Europa Occidental». Orain dela hiru bat urte sortu zen, Europako Herrien arteko askapenerako borroken koordinaziorako. Orain dela urte bi pasatxo egin zuen bere batzarre orokorra Bartzelonan. Hiri honetan du bere idazkaritza orokorra.

Batzarre orokorren artean «Nazioarteko Batzordearen» bidez funtzionatzen du bereziki CONSEO. Berriki egina du bere ohizko bilera horrek Donostian. Une honetan bi eginkizun ditu nagusienik mahai gainean: Eskubide kolektiboen Agiria, batetik, eta II. Batzarre Orokorren prestaketa, bestetik.

Estatuen artean Europaren batasuna eraiki nahian dabilzten bitartean, CONSEO «Kontra-Europaren» aukerabidea ipini du aurrean: hau da, Herrien Europarena. Kontra-Europa eta anti-Europa ez dira berdinak noski. Estaturik gabeko Europako Herriek benetan europartzat daukate beren buruak; areago, Europaren batasun jatorra eta benetakoa egiteko oinarri bakarizat.

Estatuen azpian ahantzirik, ukaturik eta zapaldurik dauden Herrien errautsen gainean Europa eraiki nahi izatea, zuzengabekeria izateaz gain, etorkizunik gabea da, estatuen barnean horiek ipintzen dituzten kontradizioak areagotu egingo bait dira estatuen Europa horretan: Horren seinale besterik ez da oraingoz CONSEO. Europa ofizialak oso kontutan hartu beharko duen Herrien Kontra-Europa hau; eta ez Europako polizi batasuna eratzean bakarrik. Europako Kultur Elkarteak predikatzen dutenek ezin dute ahantzi 30 milioi europar direla EEEOko estatuen barruan, horien hizkuntza eta kultura ofizialetik kanpo, beren hizkuntza eta kultura bereziak eta nazionalak dituztenak.

Badirudi Europako erakunde ofizialetan Herrien errealitate horretaz zerbait jabetzen ari direla. Baina oraindik luzea da ibili beharreko bidea. Hori ebakitzeko sortua da CONSEO.

Estatu denek izan ohi dute izendatuta halako egunen bat, efemeride nagusiren bat ospatzeko eta erregimen politikoa sendotzeko: «Garaipenaren eguna», «Errepublikaren eguna», «Konstituzioaren eguna»... Denek dute zentzu berbera.

Europa ofizialak ez du oraindik horrelako egunik izendatu. Seguruenik ez dago zer ospaturik, sendotzekorik asko baldin badago ere. Estatuen Europaren estatuak dira nagusi, eta horien egun ofizialak dira sakratuak.

Herrien Europa (Kontra-Europa) aurreratu zaio Europa ofizialari bere eguna hautatzean. Baina ezaguna da askapen-bidean doazen giza komunitate edo Herrien egunak ez direla izaten inolako egoeraren bat sagartzeko eta sendotzeko, eta bai askapen-borroka indartzeko eta etorrera berriaren esperantza suspertzeko. Iraganeko gertatuak gogoratu eta ospatzen dituzte ezarritako erregimenek; etortzeaz dauden gertakizunak irudikatu eta aurreratzen dituzte Herri ukatuek beren «Abe-

rri-egunetan». Azken zentzu hau du noski Herrien Europaren Eguna, martxoaren 21ekoak. Agian horrexegatik izendatu dute urteko egun horixe. Europaren udaberria iragartzera dator: Herri librean Europa!

Iazko Herrien Europaren Eguna hizkuntza gutxitu edo minorizatu berreskurapena eta normalkuntza izan zituen asmo nagusitzat; aurtengoak Herri minorizatuak irakaskuntza du. Hizkuntza eta irakaskuntza erabat loturik doaz Herriek beren kulturazko berberatasuna eta jabetasuna lortzeko bidean. Horregatik aurtengo martxoaren batean Europako Herri «ukatuek» bertako herritar guztiak beren hizkuntzan irakaskuntza osoa eskaintzeko eskubidea aldarrikatu eta eginbidea gogoratu nahi dira.

«Irakaskuntza Euskaraz»: horra Euskal Herrian, kalean eta eskoletan egun horretan kartelen bidez zabalduko den slogana. Oihu berbera egingo dute, bakoitzak bere hizkuntzan, korsikarrek, katalanek, friuldarrek, britainiarrek, galiziarrek, galestarrek... Euskaldunontzat euskal herritar guztiontzako eskubidea aldarrikatzeko eta Europako beste Herri guzti horiekin elkartasuna adierazteko eguna da *Herrien Europaren Eguna*.

Aurtengo hau, bestalde, Euskal Herri osoan bi hilabetez aurrera doan BATEGI-NIK izeneko kanpainarekin erabat loturik doa. *Euskara hizkuntza nazionala* eta *Euskal eskola nazionala* dira, hain zuzen, kanpainaren bi slogan nagusiak. Kanpaina indartzeko eta horri zentzu internazional bat ere emateko egokia da aurtengo *Herrien Europaren Eguna*, martxoaren 21eko.

PAULO
AGIRREBALTZATEGI